

«Amaika eder-jario  
zailu joan da zuazti otatik,  
eta begira zoala  
aren itxuraz utsez  
bai eder utzi ere jantzirik».



# EDER-AUZIA

## Ederra

Makiñatxo bat lerro idatzi izan da, leen eta orain, gai oneri buruz. Ederra! Atsegin zaigun zerbait da noski. Ez gero edonolako zerbait, bikain, oso ta dizditsua baizik. Zer da ederra? Etzaigu errez galdera oni erantzuna ematea. Zailla baita berau mugatu ta ongi doakion zeaztasuna eskeintzea. Bakoitzak du bere ikuspegia, ta ba liteke maiz onentzat eder dana, arentzat itsusi edo-ta axol gabea izatea.

Dana dala, aintziñakoak, Plotino'rekin, esan oi zutenez, ederra ikusmenean datza batez ere, ta entzumenean; goragoko mailla baten ba-dira arazo, egintza ta izakera batzuk ere ederrak dituzunak; jakite ta on-oimen batzuk ere ba-dira eder ditugunak. Gorago igonez, bada azkenik edertasun garaia deritzaiguna, adi-edertasuna nunbait. Guk ere, beraz, aitor dezakegu olerkari batekin: «Ederra egia duzu, ta egia ederra».

Izakiaren gaitasun bat, doai bat duzu ederra. Eta onela askoz obeki ulertuko dituzu auzi onen inguruko beste gorabera guztiak. Iza-ki dan edozerk du zelan-alako itxura, ta itxura duen edozerk du eder-



tasuna ere: orrela esan oi zuten aintziña. Izakia «bat» duzu beren «egiazko» ta «ona» gero. Izakiak ondorioz lau doe edo gaitasun dauka: «bat», «egi», «on» eta «eder».

Auxe zan Erdi-Aroko pentsakera. Eta oiñarri bete ta zentzuen koan tinkotua gaiñera. Ederraren sustraira ta izadiz-gaiñekoraifo «du zan orrela; Jainkoari, bada, lurbiran dauzkagun doai ta gaitasun guztiak egotzi bear dizkiogu nolabait. Pentsakera au osotoro egiten dagokiona ez izatea ba liteke, Jainkoa oien izate ta guna bere baita au da, EGI, ON, OSO... EDER ere bai? Edertasuna bera ote dugu Jainkoa? Bear bada ez, guk ederraz dugun bizi ta ikasizko zentzuen beintzat.

Gurutzeko Juan deunak, «Gau Illun», «Gogo-abesti» ta «Maite Sugar biziaren» idazleak onela dio: Jainkoak leen-garaian, gauzakiak oro bere jakituriz sortzerakoan, bere ederrez jantzi zituala auek. Maite abestian orriak zear billa dabil Emaztea, ara ta ona bere Maitearen billa, ezker-eskuma ditun izakiai itaunka; eta auek erantzuten diote azkenez:

«Amaika eder-jario  
zailu joan da zuazti otatik,  
eta begira zoala  
aren itxuraz utsez  
bai eder utzi ere jantzirik»  
(«Orixe»-k itzulia).

Bapo diote izakiak! Izakiak, izan ere, Jainkoaren igarotzearen oiñatzak besterik ez dira. Olanda ere, emen dugu erdi-dizdizka Jainkoaren aunditasuna, al-izatea, jakituria, beste birtute ta indar asko rekin naste.

Joranez, aringa, «zailu» igaro zala dio olerkiak. Guretzat, beren ere, ikusgarri diran gauzakiak, Jainkoak sorturiko txikiak dira ta aringa bezela egin eta antolatua dituzu. Ba-ditu beste batzuk, su-diagoak, Bere jainkotasunari dagozkionak, arduraz, astiz ta jakituripatsetan egiñak. Beraz, Aren lanetatik txikiago auek —kosmos beren ain eder ba'dira, guk ulertu-eziñak naitaez izan bearko Aren berririk tiko ederra ta jasotasuna.

### Izadiko ederra

Edertasuna mugatu, esitu ta bereizterakoan, era bitakoa dakargu gogotara: Izadiak berez duena ta gizonak bere trebetasunez sortua. Eta guk, gizakumeok, dena eztabaidatu nai dugun ezker, emen ere iritziak eta eskatimik eta etiketak sortzen. Eder iturri biotatik zein ote da lenengo? Izadian dauzkagun gauzak berez ote dira eder, ala geuk geure bizi-ikasiz eskuratu dugun teknikaz eta eder-esmenez ote dira edergarri?

Ederkeraz bikain idatzi izan dutenen artean, joandako gizaldian bereziki, doixtarrak —Schelling eta Hegel noski— izan ditugu punterengo ta nabarien. Aipatu biok, gutxi gorabera, izadia ta ezpiritua elkartzen dituzte, ots, adigarria sumakorrean korapillotzen dute; beste era batez esanda, ulertu ta sentitu. Gogai bat itxura sentikorrez jantzi. Eta ideia naiz eredu gauza berezi baten aragiz jantzia, Hegel'ek ez du ezagutu nai izadiak duen edertasunik; ulergaitz baita ezpiritu soillaren azpitik doan edo dabillen edertasuna; bai, ostera, ezpiritu orren bekoz-bekozko zerbaiten bidean. Onela dio: «Ertiaren (artearen) ederra ezpiritutik sortua duzu». Ezpiritutik datorren oker-makurra bera ere izatezko edozein sorpen baiño gorago aurkitzen da; ezpirituaren frutua baita. Bata azke, eskuko, libre da, ta bestea ez. Eguzkia, adibidez, ez da azke ta oartun; eta ederrak azkatasuna bear du, ta gaitasun au ezpirituari dagokio. Izadiko edertasunak ezpirituan dagoena damakigu bakar-bakarrik: izadian geuk zabal-azten dugu ederra.

Oinkada bat aurrerago jotzen baldin ba'duzu —dio Hegel'ek—, jainkozko zerbaiten bateratasun osoan elkartu bear ditu, oiñarri bezela, izadi-gaia ta ezpiritu-gaia. Ezpiritu soillaren lan berezia da bi gaiok ertiaren bidez sumakor, sentikor egitea. Ertiak ipiñi bear ditu, beraz, mundu sumakorrean gaiñezka gogai-sail osoak, beingo bateko zirrara ta biotz-ikutuak aurrez-aurre jarriaz. Ertia da mutur biok lotzen dituna, ots, ezpirituzko munduaren azken-gabetasuna itxura ta eraen amaitasunean aragiltzen dituna.

Eta ezpiritua duzu Jainkoaren gain-gaiñeko agerpen; giza-ezpirituaren bidez agertzen zaigu Jainkoa. Gizonak bere zati bat, puska bat uzten ertiaren arietan; eder-egikeran, asi ta amaitu, sumakor dana ezpirituzko biurtu oi da, ta alde bestea gogozko naiz ezpirituzko dena sumakor. Eredua, au da, ezpiritu soilla gaietan jazten da. Jainkoa ezpiritu soilla duzu, izadiari bere indarra ta ugaltzea ematen dio. Erti-zelaira igarotzean, baldar irten oi dute adierazi naizko bide



guztiak; arri-mokorrean datza, adibidez, gogotasun soila, utsa; Orixe ta Txillida euskaldunen arrietan, adibidez. Etxagintza, ortaz, Irudikuzunezko artea duzu, kanpotiko azala, itxura, Urtziren agerpemari zkiturik. Eleiza ez al da Jainkoaren etxe?

Gisa orretan, aintzina joaz, ez al dugu berdin tallartean, olerkian edo ta ereserti ta musikan ere? Margo ta soifius dira ezpirituaren gaiak izadia gogozko biurtzeko, gozo ta moldakorrak izan ere. Eta gogozko danak, gaiari eragin eta indar-aziz, berarekin derama gaiki (materia) dana ere. Gogozko edo ezpirituzkoena, musika urbi xamar dala, olerria duzu, sentipenen barrutian bereziki.

### Zein lenago, izadiko ederra ala giza-ezpirituak sortua?

Izadiak eder-zauskada ederrak jaiki-azi oi dizkigu; begi aurrean dugun ikuskari zabal nasai batek, esaterako, J. Jordan'ek diozkuneez, azkenik ez duen basarte nasi edatua dugu izadia mendira igoen arrian jartzen zaigun unean; eder-erason eta biotz-ikara ulerkatzeko metaka ditugu bertan, naiz soifuzkoak eta naiz ikusgarrietan. Olerkian edo baso bateko edertasun arek, ala ere, ez omen du erti-lanak duen trinkotasunik, zeatasunik, asma beterik. Izadian zer kaxkar, eripurkiko ta zelan-alango askotxo ei dagoz. Eta olaxe duzu, izan ere, erti-lana besterik da, Irudikizunak mundu zabal apaifagoak miltzen ditu, egiazko mundua dan baiño eder-apaifagoak diran zerbaitzuk noski: biotz-zirrara bipillagocak jaiki-azten dizkigutenak, steplin beteagoak ekarri oi dizkigutenak.

Orregatik uste zuen Hegel'ek izadiko ederra edertasunaren itxura ez-oso besterik ez dala ta ideien eretik sumakorrena artean aurkitzen dala. Beste batzuk, aurrerago urrats egifilik, ederrik ez dagoela uste zuten erti-lanean izan ezik. Bergson'ek berak, geure egunotan, au galdetu oi zuen: izadia egiaz ez ote dan ederra ertiaren lortze batzuk bertan aurkitzen ditugulako baizik. Ertia ortakoz izadiaren aurretik doa, idiak gurdi aurretik bezela. Eta eraz jokatu nai baldin ba'dugu, erti-lanetan ikasi omen dugu lendabizi ederra, ta gero, ortik, ots, erti-gainditik izadira zapart egin.

Galdezka dabilta oindio, era berean, beste ainbat, jakin naiten noski, ertiz eta ikustapenez ez ote duen gizakiak izadia gaintzen margolariak eta poetak menderen mende konta-ezin ala izpilla motatu ez ba'lituzte, zer litzake gure jakituria izadiaren ederkera ta gure nari buruz?

### Orrera ote da?

Egia al dugu: izadian dizdiz dagoen ederra baiño leen gizonak asmatutakoa? Ospe ta itzala duten oler-zale ta pentsalariak dira orierdiotena. Eta ots aundia danean, ibaiak ura eramaten.

Baina ba-ditugu, ta ez gutxi, iritzi orren aurka daudenak ere. Auzi ortaz liburu galantak ondu dira; esaterako: Sánchez de Munia'in'en «Estética del paisaje natural» (Madrid, 1945). Izadi-gaiari dardu zabal ta sakonki. Bazterrak, ikuspegiak eta alderdiak dituzten edertasun lillurak jaso, azaldu ta adierazten saiatzen da batez ere: lan aberatsa, jantzi ta argibide askoduna. Zerk osotzen duen ederra, lan aberatsa, jantzi ta argibide askoduna. Zerk osotzen duen ederra, lan aberatsa, jantzi ta argibide askoduna. Zerk osotzen duen ederra, lan aberatsa, jantzi ta argibide askoduna. Zerk osotzen duen ederra, lan aberatsa, jantzi ta argibide askoduna.

Jatorriz euskalduna dugun au etzan bakarrik izan auzi onetan izadiaren alde jarri zana. Doixtarak ere ortan aritu zitzaizkigun, Nikolai Hartmann (1882-1950) adibidez. Onek, bere «Estética» idazlan sail zabala eskeintzen dio giza-edertasunari, izadi-edertasunari ta bere metafisikari; sail orretan argi ta garbi aitortzen digu: ertiak ederki lagundu oi du, bere iritziak, izadia argitan ipifit ta adierazten. Begirada puntu batera zorrozten lagundu oi du, drama-idazleak esaterako giza-bizitzan gertaera lazarriak agertu oi dituen bezela. Orixe gero, besterik ez.

Urte batzuk geroago Dufrenne prantsesa ere izadiaren maxiolari ta gaizki-esaleen aurka jaiki zan; izadia —esaten zuen— ez dugu ertiaren «alde txiro» egin bear; ez, ez dugu ertiaren bitartez bakarrik ederra sortzen: ori gabe ere badu bere ederra, badu bere nor-mailla. Udaberriko txorien kantua, erti gabe ere, ez ote zaigu atseingarri?

Dena kritika galbae zeetik irazi bearrean gabiltzanok sarri gauzak berez duten ardatz egokitik mugi-erazi ta aizkatu egiten ditugunik ezin dezakegu uka. Gizonaren erti-lanik gabe ere munduak ba-zuen bere ederra. Zein ote dugu lenago Santimamiñe ta Ekain artzuloetako margo ta marrazkiak ala Kantauri itxasoaren gurentasuna, ta beronen ertzetako arkaitz-mendixkak eta ibarrak gaitzezka zuten edertasuna? Gaur ere, amasei milla urte geroago, gure margolariak ote dira gauza eguzkiak, etzatzean, gure mendiburu laifotsuen artean barrailatzen dizkigun koloreak —zifnez lilluragarriak!— batu ta laukiratzeko? Gai ote da ortarako?

Eder zait noski, udaberri goizez, areitz, platanu, altz naiz gurbiz adar gaitzean tente, kantari ari dan birigarroari entzutea. Askotariko



ariz ornitua da aren eztarri leuna, zolia. Musikalariak ibilli izan dira aren txiruli-liru biurriak arrapa naiean. Lortu al dute? Ez, ziurrik asko. Eta, alderantziz, birigarrorik ibilli al da iñoiz musikalari baten atzamar bizkorretatik irtendako nota-sail bizirik atzeman naita? Biotatik zein ari izan ote da iñorena antz-eman bearrez? Antziñateko artistak, gerkarrak berak ere, Fideas'ek bere «Apolo» taillatzeko, giza-ereduren bat bearko zuen.

Baserrian jaioa naizelako edo, atsegin izan zait beti ta nun-nai zugaztietako ostoa artean aizeak ateratzen duen firi-firi ta zurmur gozoa. Baita ibai edo erreka egalean exerita, arri-gain oso igurtzian urak atera oi duen polpol ixurkoia ere, guztiz gogo-lasaigarri izan zait, eta izaten zait. Ederra da benetan, naiz aizearen zurmurra, naiz ur ibilliaren gibel-arri arteko marmar ezta. Zergatik ote zait eder? Ots oiek berez ederrak diralako, ala nik or zugatz-pean edo erreka ondoan exerita egonik eder egiten ditudalako? Or untze! Or koxka!

Aita Onaindia

# Askatasuna

Askatasunez, libertatez, dabiltz aideetan txoriak, beti ere utsa urratuz egoekin.

Askatasunez nai luke gizonak urratu bere ibil-bidea, beti ere libertatez oiuegiñez.

**Gizonaren oiurik nagusiena**

**askatasuna**

Indust

Bere arlo ber

«ALLEN» mo

burnian eta bu

sailean finki

«DIN» legean e

sailean tornil

neurri-neurriko

aukera ederra

zu...